







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatearen kontsumoa

Industrian kontsumitutako elektrizitateak %16 egin zuen gora irailean, 2009ko irailaren aldean; gehienbat siderurgiaren eta burdinazkoa ez den metalurgiaren ondorioz (+ %26). Hala, urteko metatuak %15 egin zuen gora, aurreko ekitaldikoarekin alderatuta. Hain zuzen ere, siderurgia eman zen igoera handiena (%29); horren ondoren beiragintza (%18), garraiobideen eraikuntza alorra (%17) eta pneumatiko fabrikazio sektorea (%15) izan ziren gehien igo zirenak.

Etxeetan kontsumitzen den elektrizitateak %6 egin zuen behera, 2009ko metatutakoaren aldean. Zerbitzu sektoreak, aldiz, kontsumo mailari eutsi zion (+0,5).

Gasaren kontsumoa







EAEn, abuztuan, gasaren kontsumoa %21 jaitsi zen, iazko kontsumoarekin erkatuta, Kontsumo konbentzionalak %7 egin zuen behera eta zentral termikoen kontsumoa %32 jaitsi zen. 2010eko abuztura arte metatutako gas naturalaren kontsumo konbentzionalak %5,7 egin zuen gora, 2009ko aldi beraren aldean; 2008ko aldiarekin alderatuta, berriz, %5,4 egin zuen behera.

Erregaien kontsumoa garraioan

Abuztura arte metatutako errepideko erregaien kontsumoak %2,8 egin zuen behera, iazko epe berean izandako kontsumoaren aldean. Nabarmenezkoa da gasolinaren jaitsiera, gasolioaren jaitsiaren aurrean (%10 eta %1,6). Azken hamabi hilabeteetan izandako kontsumoaren batez bestekoari dagokionez, egonkor egon da 2010eko hasieratik.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren prezioa

Irailean petrolio upelaren prezioa 77,8\$ izan zen. Dolar-euroaren trukearen bilakaeraren ondorioz, eurotan egiten diren ordainketetan ez da aldaketarik izan.

Petrolioaren kontsumoa munduan

Ameriketako Estatu Batuetan petrolioaren kontsumoak joranzko joerari eutsi zion, eta 2009an metatutakoarekin alderatuta, %1,7 egin zuen gora abuztura arte. Europan, aldiz, kontsumo maila bertsuan ibili zen, eta metatutako beherakada %3 izan zen. Txinan, iaiztik zuen hazkunde edo gorakada handia azken bi hilabeteetan apaldu bada ere, kontsumoak %19 egin zuen gora, 2009ko abuztuan izandakoaren aldean.

Energiaren kontsumoa Espainian

Espainian, irailean gas naturalaren kontsumoak %4 egin zuen behera. Hori horrela, 2009n izandako metatutakoarekin erkatuta, urteko metatua %1,6 jaitzi zen. Elektrizitatearen kontsumoak, ordea, %3,4 egin zuen gora, iaizko irailean izandakoarekin alderatuta.

Automozio-erregaiei doakienez, abuztura arte kontsumoak %2 egin zuen behera. Zehazki, gasolinena %6,1 jaitzi zen eta gasolioena %0,9.

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %0,8 egin zuen gora, urteko metatua uztaile arte, iaizko epe berean izandakoarekin konparatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta JODIren datuetan oinarrituta.